

**DOKUMENTU-TRUKEA AHALBIDETZEKO
EGUÍA-CAREAGA FUNDAZIOAREN ETA ARARTEKOAREN ARTEKO
LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENA**

Gasteizen, 2014ko abenduaren 19an.

BILDUTA

Alde batetik, **O. Iñigo Lamarca Iturbe, Euskadiko jarduneko arartekoa**, erakunde horren izen eta ordezkartzan, 2014ko ekainaren 18an Eusko Legebiltzarrak izendatua eta Legebiltzar berak 2009ko urriaren 8an berretsia.

Eta, bestalde, **EGUÍA-CAREAGA FUNDAZIOA**, egoitza General Etxagüe k., 8 Behea, 20003, Donostia (Gipuzkoa) helbidean duena, 20058897 IFK zenbakiarekin, eta bere izen eta ordezkartzan O. Jesús Antonio Pérez Arrospide, EGUÍA-CAREAGA FUNDAZIOKO lehendakari gisa.

EGUÍA-CAREAGA FUNDAZIOAK eta ARARTEKOAK, hemendik aurrera "Alderdiak", Hitzarmen hau sinatzeko gaitasun juridiko nahikoa dutela elkarri aitortuz eta bertan jasotzen diren betebeharrak onartuz,

ADIERAZTEN DUTE

1. EGUÍA-CAREAGA FUNDAZIOA gizarte-ekintzako profesionalen praktikaren, Gizarte Zerbitzuetako antolakundearen eta gizarte-ongizateko politiken hobekuntza helburu duen irabazi asmorik gabeko entitatea dela.
2. Eusko Jaurlaritzako ARARTEKO Erakundea, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak sortu eta arautua, Euskadiko Autonomia Estatutuak bere 15. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz, gizartearen zerbitzura dagoen Zuzenbide Publikoko erakundea dela, bere langileen trebakuntza ezartzeko arauak egiteko eta antolamendua zehazteko ahalmenaz gozatzen duena; horren mende dauden langileentzat Eusko Legebiltzarrak antolatutako trebakuntzaren kalterik suposatuko gabe.
3. EGUÍA-CAREAGA FUNDAZIOAK, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroaren bitartez, gizarte-politikan eta gizarte-zerbitzuetan (ahalmen-urritasunak,

persona nagusiak, mendekotasuna, bazterkeria eta pobrezia, droga-mendekotasuna, familia, haurtzaroa eta nerabezaroa, boluntariora...) espezializatutako dokumentu-zerbitzua pertsona interesdun ororen esku eta, bereziki, erakundeen, profesionalen eta ikertzaileen esku jartzen duela, zeinak nazioartean, estatuan eta erkidegoan sortutako dokumentazioa bildu eta katalogatzen baitu. Funtz hau web orrialde baten kudeaketarekin eta espezializatutako zenbait dokumentu-aldizkarirekin osagarritzen da.

4. ARARTEKOAN, bere lan-esparruen (egun, 29) antolaketak aholkularitza-funtzioak dituen pertsonal teknikoaren ezaguera espezializatu altua eskatzen du, honek iturri anitzeko informazioa eskuragarri izan behar duelarik, zeinak informaziorako sarbide azkar eta osoa edukitzea eskatzen baitu.

Aldi berean, ARARTEKOAREN Liburutegia Eguía-Careaga Fundazioarentzat interesgarria izan daitekeen giza-eskubideei buruzko informazio eta dokumentazioan espezializatua dago.

5. Informazio Zientifikorako sarbidean teknologia berrien garapenak ekarritako aldaketak, Euskadin ikerketa, irakaskuntza eta dokumentazioaren alorretan lan egiten duten entitateen arteko sinergiak sustatzeko premia, edo erakunde publikoen eta irabazi asmorik gabeko entitateen arteko loturak indartzeko komenentzia eta antzeko faktoreek, honelako lankidetzarako hitzarmen baten ezarpena justifikatzen dutela.

Horiek horrela, Alderdiek honako LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMENA adosten dute, hurrengo klausuletan xedatutakoarekin bat etorritz.

KLAUSULAK

LEHENA.- XEDEA

Hitzarmen honen xedea EGUÍA-CAREAGA FUNDAZIOAREN eta ARARTEKOAREN artean lankidetzarako esparru egonkor bat ezartzea da, dokumentazioaren alorrean erakunde bien lankidetzara, informazio-trukea eta gizarte-zerbitzuen eta gizarte-politikaren alorretako jardueren zabalkundea sustatzera bideratutako ekimenak garatzeko.

BIGARRENA.- JARDUERAK

Lehen Klausulan ezarritako xedearen barruan, EGUÍA-CAREAGA eta ARARTEKOAK beren lankidetzara hurrengo jardueren inguruan artikulatzea interesgarria dela uste dute:

1. Legegintzako eta dokumentazioko datu-baseetarako sarbidea

- SIISek ARARTEKOAREN esku jarriko ditu bere dokumentu-funtsak eta datu-base espezializatuak, baita aipatu funtsen zerbitzu digitalak ere, ARARTEKOAREN barne-sarean gehituko den lotura baten bidez.

2. Erregistro- edota harpidetza-trukea

- SIISek, baldintza teknikoek ahalbidetzen duten neurrian, ARARTEKOARI bere funtsen indexatzea eta horien kontsulta integratua liburutegiko OPACean.
- ARARTEKOAK, bere Liburutegia harpidetuta dagoen aldizkarien artikuluetarako sarbidea erraztuko die SIISeko dokumentalisteri, betiere SIISek biltzen dituen gaiekin bat egiten baldin badute.
- Aldizkako argitalpenen harpidetzarako lankidetzak-formulak ezarriko dira.

3. Liburutegien Ateko Mailegua

- Hitzarmen honen esparruan Liburutegien Arteko Maileguko akordio bat ezarriko da SIIS eta ARARTEKOAREN artean, zeinaren bidez sartu ahal izango baitira zentro bien komunitateak bakoitzaren funtsean, mailegutza, digitalizazioa, bidalketa eta entrega-epeak entitate bientzat lehentasunezkoak izango direlarik.

4. SIISek kudeatutako produktu eta dokumentu-zerbitzu pertsonalizatueta-rako sarbidea, Arartekoaren kideentzat.

- ARARTEKOAREN kideek SIISi doan eskatu ahal izango diote harpidetza, aldizkako alerta-zerbitzuetan, erabiltzaile bakoitzaren informazio-premietara egokituta, interesgarri zaion alor berezitan jasotako berriekin.
- Era berean, ARARTEKOAREN Dokumentazio-Zentroaren langileek SIISen berezko baliabideetan dokumentu-bilaketa zehatzak eskatu ahal izango ditu, ARARTEKOAREN Dokumentazio-Zerbitzuak eskain dezakeenaren osagarri gisa.

5. Argitalpenen zabalkundea eta ARARTEKOAREN trebakuntza-jarduerak SIISen argitalpenetan.



- Siisek, bere argitalpen elektronikoen bidez eta paperean zabalduko du gertakizunen, ikerketen edo ARARTEKOAK egokitzat jotzen dituen bestelako gaien gaineko informazioa.
- Era berean, Siisek ARARTEKOAREN artikuluen argitalpenari lehentasuna emango die Gizarte Zerbitzuetako Zerbitzuan aldizkarian.

HIRUGARRENA.- JARRAIPEN-BATZORDEA

EGUÍA-CAREAGA FUNDAZIOKO bi ordezkari (Arantxa Mendieta eta Joseba Zalakain) eta ARARTEKOAREN beste bik (Ibone Múgica eta Inmaculada de Miguel) osatutako Jarraipen-Batzorde bat ezartzen da, zeina arduratuko den:

- a) Hitzarmen honen garapen osoan zehar ager litezken betetze eta interpretazio arazoak konpontzeaz;
- b) ororen interesekoak diren gaietan lankidetzarako aukerak sustatzea;
- c) Sor daitezkeen Hitzarmen Berezituak altxatzea beren onarpen eta berrespenari dagozkien organoetara.

LAUGARRENA.- HITZARMENAREN IZAERA

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, bere interpretazio eta garapenean ordenamendu juridiko administratiboak agintzen du, eta Sektore Publikoko Kontratuari buruzko urriaren 30eko 30/2997 Legearen aplikazio-eremutik kanpo geratzen da, bere 4.1 c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ezein alderdiri eduki ekonomikorik suposatu gabe.

BOSGARRENA.- IRAUPENA ETA AMAIERA

Hitzarmen hau, berresten den egunean jarriko da indarrean, eta 2015ko abenduaren 31ra arteko iraupena izango du. Behin iraungia, automatikoki luzatua izango da urtebeteko denboraldiz, alderdiek kontrakoa zehazki adierazten ez duten bitartean.

Hala ere, Hitzarmen hau edozein Alderdik salatu ahal izango du, bere amaiera baino bi hilabete lehenago dagokion komunikazio frogagarriaren bidez. Hitzarmen honen deuseztatpenak ez die burutzeko momentuan martxan leudeken jardueri eragiten.

SEIGARRENA.- GATAZKEN KONPONBIDEA


Alderdiek, Hitzarmena betetzeari dagokionean sor litezkeen desadostasunei, eskura dituzten bide guztiak erabiliz, elkarrizketa eta negoziazio bidez, irtenbidea aurkitzeko konpromisoa hartzen dute.

Eta, hala jasota gera dadin, goiburuan zehaztutako toki eta datan sinatzen dute.

**EGUÍA-CAREAGA
FUNDAZIOKO LEHENDAKARIA**


José Antonio Pérez Arrospe
Lehendakaria

ARARTEKOA


Iñigo Lamarca Iturbe
Arartekoa